



Saguzar espezie biren kolonia identifikatu dute Mañarian

Gabako elkarteak sortu dute Durangaldean. Kontserbazio-premia eta interes berezia duten animalia gautarren egoera ezagutu eta hauen inguruko kontserbazioa eta ezagutza sustatzea dute helburu; saguzarrak aztertu dituzte orain arte; Aitor Agirrezabala taldekideak Mañarian eta inguruetan dauden saguzar espezie biren koloniarik aztertzen ditu. • 2-3

"Literatura garrantzitsua da umeekin lotura sortzeko, atentzio osoa eskatzen du eta"

Kultura | Amaia Egidazu durangarrak 'Dorothea' album ilustratua kaleratu du oraintsu, Etxepare saria irabazi eta gero; Arteka liburu-dendan hiru errezitaldi egingo ditu zapatuan, eta, horrez gainera, ilustrazio originalak ikusgai egongo dira. Liburua sortzea "plazeragaz loturiko jolasa" izan dela dio. • 24



"Kioseko kanpamentuan lehen arreta eskaintzen dugu"

Elorrio | Ixone Mendizabal Kioseko (Grezia) errefuxiatuen kanpamentuan egon da, Itsas Salbamendu Humanitario elkarteagaz. Momentu honetan kanpamentuko egoera "asko lasaitu" dela azaldu du. • 8



Durangoko emakumeen memoria bizia jasotzeko proiektua, martxan

Raquel Calvok eta Zuriñe López de Sabandok 'Durangas' proiektua hasi dute, "aintzat hartu ez diren emakume durangarrei ahotsa emateko" • 4



Aitor Arrizabalaga Escudero

Biologian doktorea eta Gabako elkartearen kidea

BILBO | 1988

“Saguzarrek ezaugarri berezi asko dute, eta asko dugu eurengandik ikasteko”

Durangaldeko hiru bizilagunek gaueko basabizitzaren kontserbaziorako Gabako elkartearen martxan ipini dute; saguzarrei buruzko ezagutza jaso eta zabaltzeaz arduratu dira orain arte

ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO
Aitor Arrizabalagak, Jon Arzubikiak eta Ane Solagaistruak Gabako elkartearen sortu dute. Naturarekiko zaletasunak batu ditu hirurak. Zaletasun horretatik abiatuta, eta jendarteari ekarpena egiteko asmoz, gaueko basabizitzaren kontserbaziorako elkartearen sortu dute martxan. Berbaldiak eta Saguzar gauak direlakoak egin dituzte, besteak beste. Arrizabalaga biologian doktorea ere bada. COVID-19aren agerpenak berez misteriozkoak den animalia bat jomugan ipini duela ere nabarmendu du.

Zergaitik sortu duzue elkartearen?

Elkartearen helburu orokorra kontserbazio-premia eta interes

berezia duten animalia gautarren egoera ezagutu eta hauen inguruko kontserbazio eta ezagutza sustatzea da, batez ere saguzarrena. Jonek eta biok animaliak gustuko ditugu, eta sasoi hartan nik saguzarrek lan egiten nuen. Basora joaten ginen ultrasoinu detektagailuekin, zer zegoen ikustera. Gustuko dugun zerbait eginez, zerbait berria eskaini ahal izatea erakargarria egiten zitzaigun. Hortik hasi zen elkartearen sortzeko ideia. Gerora, Ane batu zitzaigun.

Ekimen batzuk egin ditugu ibilbide honetan. Urkiolako parkean Saguzar gaua egin genuen; saguzarrei buruzko berbal-

di bat eskaini genuen, eta gero, iluntzean, detektagailu batzuk hartu eta kanpora irten genuen saguzarrek ikusi eta entzuteko asmoz. Jendea asko harrizten da; azken finean, saguzarra animalia iluna da eta ez da ikusi ere egiten ia; baina detektagailua piztu eta zaratak entzutean, ikusten dituzte.

Badago zuenaren moduko beste elkarerik inguruetan?

Europar ohikoagoak dira, orokorrean kultura natural handiagoa dute eta. Estatuan badago elkarerik bat saguzarren ikerketa eta kontserbaziorako, eta Euskal Herrian ere hasi dira elkarte eta norbanakoak martxan.

Azaroan topaketa bat egitekoak zaretela antzeko taldeak.

EHUko ikerketa talde batek urteak daramatza saguzarrek ikertzen, eta egiten duten lanaren zati bat naturarekiko konpromisoagaitik egiten dute. Elkarte txiki eta norbanako batzuk martxan ipini direla ikusita, topaketa egitea pentsatu dute, elkar ezagutzeko eta elkarlanik egon daitekeen ikusteko.

Gabako elkartearen jarduna Mañariko udalerrira mugatu dugu, bertoko saguzarren ezagutza bat garatzeko

Aurrera begira, zer gustatuko litzazueke egitea?

Gauza asko dugu buruan, baina horiek gauzatzea beste kontu bat da. Gure jarduna Mañariko udalerrira mugatu dugu, bertoko saguzarren ezagutza bat garatzeko. Gero, ezagutza hori herritarrekin partekatu gura dugu.

Nondik datorkizu saguzarrekiko zaletasuna?

Biologia ikasketak amaitzen nabilela, zoologia irakasleek eurekin hiru asteko landa lana egiteko proposamena egin ziguten; lan boluntarioa zen eta ikaskide bi apuntatu ginen. Hiru astez, Cazorlan (Espainia) saguzarren radiotrackin- ga [irradi bidezko jarraipena] egin genuen. Zur eta lur geratu nintzen saguzar bat lehenengoz ikusi nuenean. Harrezkero, egunero ikasi dut zerbait berria. Ezaugarri berezi asko dute eta asko dugu eurengandik ikasteko.

Zergaitik dute fama txarra saguzarrek?

Saguzarrek, historian zehar konnotazio desberdinak eduki dituzte. Fama txarra, batez ere, *Dracula* eleberritik datorkio. Bram Stokerrek pertsonaia odolzale bat behar zuen istorioa idazteko, eta animalien artean bat egin zitzaion baliagarri: banpiroa. Banpiroa saguzar espezie bat da, odolzalea, gautarra eta hegalaria, Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan bizi dena. 1.400 saguzar espezie baino gehiago daude; bakar hori baliatu zuen Stokerrek eta hortik datorkio fama txarra. Hegazti odolzaleak ere badaude, adibidez, baina ez dute fama hori. Saguzarra animalia gautarra da, txikia, eta ez duguna ondo ezagutzen edo ulertzen. Ezaugarri horiek animalia desberdina egiten dute, eta horrek, ezjakintasunagaz eta liburuaren kontuagaz nahastuta, koktel itzela sortzen du. Gehitu horri birusaren agerpena.

Animalia guztiengan bizi dira birusak, baina euretariko gehienek ez dute onurarik edo kalterik

sortzen. Animalia espezieetako birusei buruz oso gutxi dakigu. Azken hamarkadetan, baina, asko ikertu dira birusak, batez ere saguzarren. Zergaitik? Saguzarrek gehiago ikertzen hasi ziren, amorreri kasu batzuen harira. Saguzarra animalia soziala da, eta leku bakarrean asko bizi daitezke, eta horrek asko errazten du ikerketa, beste animalia batzuekin alderatuta. Azken hamarkadetan gehiago dakigu saguzarrei buruz, beste animalia batzuei buruz baino. Birus berri bat agertzerakoan, ezagutzen ditugunekin konparatzen dugu. SARS-CoV-2 birusaren agerpenagaz, animaliei erlazioaturiko birusen eta birus zoonotikoen, animalieganatik pertsonengan pasatzen diren birusekin, konparatu da hau.

Zer gertatu da?

Alde batetik, ikusi da saguzarrek ez dutela beste ugaztun talde batzuek baino birus zoonotiko gehiago. Bestetik, orain arte SARS-CoV-2 birusagaz antzekotasunik handiena duen birusa saguzarren topatu dela, baina horrek ez du esan gura birusa saguzarrendik pasatu denik. Ezta birus berdina denik ere, izan ere, %96ko antzekotasuna du. Hori, gizakiak eta txinpantzeak berdinak garela esatea lako da, gure DNAREN antzekotasuna maila horretakoa da eta. Titular

SARS-CoV birusagaz antzekotasunik handiena duen birusa saguzarren topatu da; horrek ez du esan gura saguzarrendik pasatu denik gizakiengana

horien ondorioz, munduko leku askotan saguzarrek kontrako neurri zentzubakoak hartu dira. Asiako eta Hego Amerikako zonalde batzuetan kolonia osoak hil dituzte. Garrantzitsua da azpimarratzea saguzarrek onura asko eskaintzen digula, besteak beste intsektuen populazioa kontrolatzeko eta fruitu tropikal asko polinizatzeko. Honek biodibertsitatearen eraldaketagaz ere badu lotura, besteak beste. Zientzialarien esanetan, gaixotasun zoonotikoak izugarri hazi dira azken urteetan, adibidez. Ere mu naturalen transformazioak mundu basatiaren eta gizakiaren arteko kontaktu handiagoak, eta globalizazioak orain bizitakoaren moduko pandemiak bizitzeko arriskua handiagotzen dute, labur esanda. Pelikula honetan saguzarrek agertzen dira, baina izan zitekeen beste animalia bat, HIESagaz edo Lyme gaixotasunagaz gertatu den moduan.

Mañarian saguzar espezie biren kolonia bat identifikatu dute

Ehunka animaliak osaturiko kolonia da; espezie bi hauek sarritan batzen dira kumatze-sasoian

SAGUZARRAK • JOSEBA DERTEANO

Saguzarra animalia soziala da eta urteko hainbat sasoiatan kolonietan batzen da. Kolonia mota nagusi bi daude: hibernatze-koloniak, negua elkarregaz igarotzeko sortuak, eta kumatze-koloniak, batez ere saguzar emeek osatzen dituztenak.

Kumatze-kolonia bat Mañarian identifikatu dute Gabako elkarteko kideek. Gurago dute kokapen zehatza zein den ez esan, animalien segurtasunagaitik. Espezie bik osatzen dute: ferra-saguzar handiak eta Geoffroy saguzarrak. "Ehunka gutxi batzuek osaturiko kolonia da", dio Arrizabalagak.

Ferra-saguzar handia Euskal Herrian dugun espezierik handienetakoa da: 35 bat zentimetro izan ditzake hegaleko punta batetik bestera. Sitsa eta kakalardoa dira bere elikagai nagusietariko bi, eta, batez ere, baso ertzetan ehizatzen du. Ferra-saguzarra ez da animalia azkarra, baina bai maniobratzen trebea, eta basoak landa eremuagaz bat egiten duen guneetan ehizatzen ditu harrapakinak erosoan.

Geoffroy saguzarra txikiagoa da —22 bat zentimetro hegaletik hegalerara—. Basoan baino gehiago,

baserri inguruetan aurkitu daiteke sarritan, kortetan eta ganbaretan. Intsektuek osatzen dute bere dieta, eta armiarmak ere jaten dituela da bere berezitasunetariko bat.

Eskualdean gehiago

Euskal Herrian 27 bat saguzar espezie dago, eta Durangaldean, Mañariko herri inguruan, basoetan edo Untxillatz inguruan, euretariko bederatzi identifikatu izan dira —aipatutako biak barne— azken uda bietan.

Euskal Herrian 27 bat saguzar espezie dago, eta Durangaldean hainbat identifikatu dituzte

Saguzarrak non batzen dira araldirako? Euskal Herrian nahikoa ezezagunak dira araldirako guneak, baina adituek badakite gune karstikoak gustatzen zaizkiela, erosioak zuloz eta kobazuloz diseinaturiko guneak. Ildo horretatik, Mugarra inguruan saguzarren araldirako interesgarria dirudien zonalde bat fitxatuta dute. Saguzar-



Saguzar arratoi-belarria da Durangaldean detektatu duten espezieetako bat.

rrak hara joaten dira, ustez bikotekide bila.

Kume gutxi eta bizitza luzea

Tamaina bereko beste ugaztunekin konparatuta, saguzarren ugalketa eta hazkuntza ezohikoa da. Horretan, tamaina handiagoko ugaztunen antz handiagoa du. Kume gutxi izaten ditu, bakarria normalean, eta, duen tamainarako, luzaro bizi da. Esaterako, Euskal Herrian 20 urteko ferra-saguzarrak idenfitikatu izan dituzte, eta munduan 30 urtera artekoak.

Saguzarrak zelan ikertu

Saguzarra animalia txikia eta iheskorra da. Asko dago, eta ehunka kilometroko bidaiak egin ditzake. Zelan aztertu daiteke? Zelan jakin munduan oraingoz deskribatuta dauden 1.423 saguzar espezieren artean Mañarikoak zeintzuk diren? Zer dioten entzunda da erantzuna, edo zehatzago esanda, zer frekuentzian dioten neurtuta.

Saguzarrak ekokopena deituriko sistema darabil mugitzeko eta espazioan non dagoen zehazteko.

Berak igorritako soinuen oihartzunak bueltan jasota eraikitzen du inguruan duenaren mapa zehatza. Espezie bakoitzak frekuentzia jakin batzuetan igortzen ditu soinuak, eta horiek neurtuta jakin daiteke zer espezie dabilen inguruan. Baina gizakiak ezin ditu soinu horiek entzun. Ultra-soinuak dira, hau da, gizakiak entzun dezakeena baino maiztasun handiagoko soinu-uhinak. Beraz, ikertzaileek ultrasoinu detektagailuak erabiltzen dituzte saguzar espezieak bereizteko.

Saguzarra geroago eta zokoratuago dago eta geroago eta baliabide gutxiago du

Durangaldean identifikatu dituzten saguzar espezie guztiak legeak babestuta daude

SAGUZARRAK • J.D.

Munduko ugaztun espezie guztien %25 inguru saguzarrak dira —4.100 ingurutik 1.423—, baina, hala ere, ez dira asko ezagutzen. Badirudi apurka handitzen dabilena animalia honekiko interesa, baina oraindino "asko dugu ikas-teko", dio Arrizabalagak.

Saguzarren mugimenduen, ohituren eta bestelako ezaugarriak maila handitzea garrantzitsua da babes neurri eraginkorrek sortzeko. Izan ere, adibide bat ipinita, azken uda bietan Durangaldean identifikatu diren ia espezie den kontserbazio-egoera ez da ona Jaurlaritzako Ingurumen Sailako 2018ko txostenaren arabera. Saguzarren bizimoduan zuzenean eragiten duen faktore bat gizakia da. Orokorrean, "sagu-

zarraren bizimodurako beharrezkoak diren baliabideak kentzen gabiltza", dio Arrizabalagak, eta, ondorioz, geroago eta zokoratua dago. Esaterako, saguzarren ehizalekua basoa da eta baso "gutxi" dugu. "Asko pinadiak edo eukaliptuak dira eta ez dute basoen ezaugarriarik", zehaztu du. Horrez gainera, gordeleku modura erabili daitezkeen geroago eta zehatz handi gutxiago dago, eta hori arazo bat da basoko espezieentzat.

Keinu txikiak, laguntzeko

Saguzarren biziraupenean laguntzeko, keinu txikiak alde handia markatu dezakete, gizarte ohitura bihurtzen badira. Saguzarra eraikinen atikoetan edo baserriko korta eta ganbaretan bizi da sarritan. Bizilagunek

handik atera gura izaten dituzte sarritan, baina ez dakite egoera zelan kudeatu. Alde horretatik, Gabako elkarteak aholkularitza eskaini dezake. "Badaude moduak eta protokoloak saguzarrak ganbaretatik edo atikoetatik ateratzeko hil barik, edo eurei kalte minimoa eraginda", baieztatu du Arrizabalagak. Horrelako egokieraren bat bizi duenak honako helbide elektronikoko honetara idatzi dezake kontsulta bat egiteko: gabako.elkartea@gmail.com.

Saguzarrak intsektujale amorratuak dira. Leku batzuetan hasi dira saguzarrak izurrien kontrol biologiko bezala erabiltzen, esaterako, Katalunian. "Beraien presentzia ingurune osasuntsu baten adierazle da", dio Arrizabalagak.



Ferra-saguzar txikia babesturiko espeziea da Ingurugiro Sailak egindako zerrendan.

"Aintzat hartu ez diren emakume durangarren ahotsa azpimarratu gura dugu, herriko memoria bizia jasotzeko"

'Durangas' izeneko proiektua hasi dute Durangoko Andragunean, herriko emakumeen memoria bizia jaso eta herriko historia euren ikuspuntutik kontatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Raquel Calvo eta Zuriñe López de Sabando Huts laborategiko kideak dira. Asteon, Durangoko historia herriko emakumeen begietatik kontatzeko lan saioak hasi dituzte. Herriko emakumeak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. Andragunean batuko dira hemendik eta maiatzera arte, bariku arratsaldeetan.

Tailerrean parte hartzen dutenek erabakiko dute zer kontatuko den. Taldeak berak egingo du ikerketa ariketa. Eurek planteatuko dute zein izango den emaitzaren ildoak.

"Prozesuaren amaieran, dokumental sozial parte hartzaile eta feminista bat osatzea gura dugu"

Nondik dator Durangoko emakumeen memoria jasotzeko proiektu hau?

Durangoko historia emakumeen ikuspuntutik kontatzea da proiektuaren helburua, bizi izan duten historia kontatzea. Horregaitik, Durangoko emakumerik adinduenaren memoriatik hasiko gara. Bere memoria ailegatu daitekeen puntutik. Beraz, gerra zibiletik gaur egunera arteko tartea landuko dugu.

Memoriak ikuspegi asko izan dezake: historikoa, bizipen pertsonalei loturikoa, migrazioak... non kokatuko duzue begirada?

Zein dinamika landuko dituzue lan saioetan?

Artetik, ikerketatik eta elkarrizketetatik ekingo diogu. Berba asko egingo dugu norbere historiaren inguruan. Zein gertakari izan den garrantzitsua bakoitzarentzat. Hori dena batzen ahalegingo gara. Eta hor sartu gaitezke politikan, soziologian, amatasun formetan, hartu-emanetan, euskalgintzan eta abar. Aintzat hartu ez diren emakume durangarren ahotsa azpimarratu gura dugu.



Raquel Calvo eta Zuriñe Lopez de Sabando proiektuaren bultzatzaileak.

Zelako bizitza izan dute emakume horiek? Zelan ikusi dute ingurua aldatzen? Zein hausnarketa eragin diete aldaketek? Hortik hasiko gara.

Azarotik maiatzera arte egongo zarete lanean. Zein izango da azken emaitza?

Proiektua barrutik kanporako prozesua izango da. Ikus-entzuzkoekin arituko gara. Elkarrizketak grabatuko ditugu eta lan saioak iruditzen hartuko ditugu. Eta, amaieran, dokumental sozial parte hartzaile eta feminista bat egitea da asmoa.

Zer esango zeniekete lan saioetara etortzeko dudatan daudenei?

Ateak zabalik dituztela. Barikuro hemen egongo gara, Andragunean. Hona etorri gura duenak idatzi dezala huts@huts.eus helbide elektronikora edo galdetu dezala Andragunean.



Gaztetxea izandako eraikina Montevideo eta Urribarri kaleen artean dago.

Durangoko Udala URAK "bilera noiz zehaztuko zain" dago, gaztetxea izandakoa botatzeko

Udala eta eraikinaren jabea elkarregaz batu dira. Orain, udalak URAGaz batu gura du "prozesua desblokeatzeko"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi du lanean jarraitzen duela Montevideo kaleko Urribarri 23 eraikina botatzeko. "Jabetza pribatuko eraikina denez" eta errekararen ibilgutan dagoenez, udalak gura duena da "URAK eta eraikinaren jabeak" eraikina botatzeko prozesua ahalik eta lasterren desblokeatzen laguntzea. Udalak dio "asteak" daramatzala URAk bilerara noiz

Eraikina botatzeko "beharrezko pausoak" eman ditzan eskatu dio EAJk gobernu taldeari

deituko zain. Bestalde, eraikina botatzeko "beharrezko pausoak" eman ditzan eskatu dio Durangoko EAJk gobernu taldeari. Jeltzaileek diote herritarren osasunagaz

"kezkatuta" daudela, eta eraikina "puntu beltza" dela aspaldidanik.

Auzitegi Gorenak eraikina "ilegala" zela ebatzi zuen 1970eko martxoan. Baina ez hori bakarrik. Eraikina bota egin behar zela jaso zuen ebazpenak, baina gaur egun ere hantxe dago, zutik. Otsailean, Montevideo kalearen bueltako bizilagunek "eraikina botatzeko beharrezkoak diren pausoak emateko" eskatu zuten osoko bilkuran. Udaltzako alderdi guztiek aho batez onartu zuten bizilagunen mozia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko azaroaren 5a
19. urtea - 869. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko umeeek herriko indarguneak eta gabeziak kokatu dituzte web orri batean

Indarguneetan Open Shop, Zuhatzola, Ezkurdi edo Zugaza zinema aipatu dituzte. Beharrezana dutenentzako babesleku baten, gurasorik bako txiki-park baten edo parkour gune baten falta igarri dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Umeen Kontseiluak webgune berri bat sortu dute. Mapa batez eta bideoekin lagunduta, umeeek herriaren zer falta den eta begi onez zer ikusten duten nabarmendu dute. Haurren berbetan, txakurgune larregi dago Durangon.

Parkourra praktikatzeko gune baten falta igartzen dute, bidegorri gehiago gura dute, eta komenigarritzat jo dute gurasorik bako txiki-park bat ipintzea, kale izendegian emakumeen presentzia areagotzea eta beharrezana dutenentzako babesleku bat sortzea. Bestalde, indargune lez iden-

tifikatu dituzte Open Shop denda, Otamotzena parkea, Zuhatzola parkea, Tabirako igerilekuak, Ezkurdiko parkea eta Zugaza zinema. Orain, udalak erronka berriei erantzungo die. Udal iturriek aurreratu dute lanean hasiko direla identifikaturiko zenbait ahuleziari irtenbidea emateko.



Umeen Kontseilua urriaren amaieran egindako bileran.



Aitor Hernandez 2019ko Garaiko ziklo-kros proban.

Garaiko ziklo-kros sariketan umeen lasterketak ere egongo dira

Ohiko kategoriez gainera, aurtengo edizioan haur kategoriako eta kimu kategoriako probak jokatuko dituzte

GARAI • EKAITZ HERRERA

Data ipinita dago. Garaiko ziklo-kros sariketa azaroaren 27an jokatu da. Halantxik aurreratu du Ander Azpitartek, Garaiko Triatloi Taldeko kideak. Aurtengo edizioa berrikuntza batez dator. Azpitartek jakinarazi du "11 eta 12 urteko haurrak ere lehiatu-

ko direla, "haur-kategorian eta kimu kategorian". Hori bai, umeeek "zirkuitu osoa barik erdia egingo dute, biguntxoagoa", zehaztu du Azpitartek. Probak 9:00etan hasiko dira. Hasierako proba, ohikoa izaten den moduan, Master mailakoa izango da. Horren ondoren, gazte eta umeen probak jokatu dira, eta, azkenik, Open kategoriakoa.

BETI GERTU!

HEMENDIK

ELORRIORA

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, lurreta
construccion@zarateyelexpe.com

Hamar padel pista hartuko dituen kirol azpiegitura inauguratuko dute Arriandi industrialdean, zapatuan

Padelko kirol klubak padel pistak eta gimnasioa izango ditu; 12:30-15:00 eta 18:00-21:00 artean zabalduko dute



Padelko kirol azpiegiturako padel pista baten argazkia, tabernatik begiratuta.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Padelko kirol azpiegiturak bihar zabalduko ditu ateak, azaroak 6, Iurretako Tabernabari industrialdean (12:00-15:00 eta 18:00-21:00). 3.200 metro koadroko espazioan, 10 padel pista erabilgarri izango dituzte. Kirol honen zale eta hasiberriek padela praktikatzeko aukera izango dute. Padel eskolan klase pertsonalizatuak ere emango dituzte kirol horretan trebatzeko.

Gainera, kirol klubak 120 metro koadroko gimnasioa ere izango du. Ekana zentzoko profesionalen proiektu honetan parte hartuko dute entrenamendu pertsonalizatuak eskainita. Instalazio horiez gainera, taberna ere izango dute. Baita aldagelak ere, eta padel pistak ikusteko gela bat.

Proiektu honen bultzatzaileen artean, Athleticen hainbat jokalaria ohi dago: Ander Iturraspe, Xabier Etxeita, Aritz Aduriz, Markel Susaeta eta Beñat Etxebarria. Arkaitz Rementeria, Iñigo Gurutzeta eta Borja Iturraspe ere egitasmoaren arduradunak dira.



Topaketen aurkezpenean ateratako argazkia.

Arrosa irrati sarearen topaketak antolatu dituzte Abadetxean, zapaturako

Egun osoko egitarauagaz amaitzeko, 22:30ean Haatik eta Baske Street Boys taldeek kontzertua emango dute

IURRETA • JONE GUENETXEA

20 urte joan dira Nafarroa Behereko Arrosa herrian, Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren babesean eta Joxemi Zumalabe fundazioaren bultzadari esker, Arrosa euskal irratiaren sarea jaio zenetik. Urteurrenaren harira, topaketa egingo dute zapatuan Iurretan, Laixiar irratiaren etxean. Abadetxean, hiru tailer antolatuko dituzte 10:00etarako. Amelia Barquinnek eta Zebrabidearen gidariak hizkera sexista eta arrazisten inguruan hausnartu eta ikasgaiak ateratzen lagunduko dute. Arraio irratiako kideek tailer bi eskainiko dituzte; alde batetik, irrati bat software li-

breaz zelan martxan ipini, eta, bestetik, FMko emisio bat zelan egin. Goiuria kultur etxean, podcasten inguruko mahai-ingurua egingo dute, 12:00etan. Argia aldizkariko Beranduegi podcasteko eta Klak gazteon ahotsa podcasteko kideekin batera, Ondarroako Radixu eta Gasteizko Hala Bedi irratiako kideek parte hartuko dute. 14:00 aldera, bazkaria izango da eta bazkalostean Arrosa sareko irratiaren arteko irrati nobela bat egingo dute. 18:00etan, Arrosa sarearen 20 urteei buruzko dokumentala estreinatuko dute. Haatik eta Baske Street Boys taldeen kontzertuekin amaituko dute eguna.

San Pedro eta Nemesio Etxaniz kale inguruak hobetzeko bidea hasi dute

Zornotzako udalbatzak arau subsidiarioak moldatuko ditu, kale bi horietan etxebizitzak eraikitzea ahalbidetzeko



San Pedro kalea.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Arau aldaketak 67 etxebizitza eraikitzea ahalbidetuko du, eta dagoeneko eraikita dauden etxebizitza bloke bi berritze-ko lanak ere sartuko dituzte proiektu urbanistiko horretan. Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziak dio "aspaldiko" etxebizitza blokeak direla biak, "igogailurik bakoak eta teknikoki txarto daudenak". Hori dela-eta, etxebizitza berriak eraikitzerakoan, zaharragoak diren bloke bi horietan ere obrak egingo dituzte. Andoni Agirrebeitia alkateak esan du bloke bi horie-

tan bizi direnek babestu egiten dutela proiektua.

Arau subsidiarioen moldaketak EAJren eta PSE-EEren botoekin egin du aurrera. EH Bilduk kontra bozkatu du. Koalizioari "zalantzarria" iruditu zaio proiektua, udalak "ezohiko moldaketa puntual horretan" inbertituko duen dirua "enpresa pribatu baten etekinera" bideratu daitekeelako. Udalari etxebizitza sozialetan inbertitzea eskatu diote. Elkarrekin Podemoseko Alba Gutierrezek abstentziora jo du. "Ez dugu etxebizitza eredu partekatzen", esan du.



Ainhoa Salterain eta Andoni Agirrebeitia.

Zornotzako Udalak bat egin du Berdintasunerako Lurralde Sareagaz

Zinegotzi guztiek onartu dute Foru Aldundiaren sarera batzea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako udalbatzak aho batez onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak bultzaturiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarera batzea. Hori dela-eta, honako konpromiso hauek hartu dituzte, besteak beste: Udalerrian "emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan esku hartzeko beharrak eta lehenetsunak identifikatzea", "indarkeria matxistaren arloan, informazioa sistematikoki biltzeko jarraibide eta adierazle partekatuekin diseinatzea" eta "jardunbide egokiei buruzko hausnarketa, detekzioa eta azterketa egiteko gune bat sustatzea".

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

"Kioseko kanpamentuaren egoera oso txarra da; dena oso zikin dago eta arratoi piloa dago"

Ixone Mendizabal Kioseko errefuxiatuen kanpamentuan egon da erizain, Itsas Salbamendu Humanitario elkarteagaz



Ixone Mendizabal eskuman Itsas Salbamendu Humanitariko kideekin batera.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ixone Mendizabal Gomez de Segura (Elorrio, 1997) Kiosen egon da, Grezian, errefuxiatuen kanpamentuan. Elorriarrak hamabost egun egin ditu han, erizain lanetan, Itsas Salbamendu Humanitario elkarteagaz.

Greziatik bueltatu berri zara. Zelako esperientzia izan da?

Han oso egoera gogorak ikusi ditut, baina esperientzia modura oso ona izan da. Badakit apur bat kontraesankorra dena. Baina talde oso ona izan dugu eta errefuxiatuak eurak ere duten onenagaz etorri dira beti. Errepublikatzeko moduko esperientzia izan da.

Zelan sortu zitzaizun hara joateko aukera?

Itsas Salbamendu Humanitario elkartearekin sare sozialen bitartez

ezagutu nuen. Eurekin hartu-emanetan ipini nintzen; datak finkatu genituen, eta aurrera.

Zelan dago kanpamentua?

Momentu honetan, kanpamentuko egoera asko lasaitu da. Egon dira sasoiak kanpamentuan 7.000 lagun egon direna, eta orain 300 bat daude. Horrek erraztasunak ematen dizkigu lan egiterako orduan.

Greziako gobernuak amaitutzat ematekotan dabil errefuxiatuen krisia. Orduan, ahalegina egiten dabilta irlatako kanpamentuak ahalik eta gehien husteko. Hortik dator errefuxiatuen kopurua gutxitu izana.

Hala ere, Kioseko kanpamentuaren egoera oso txarra da. Dena oso zikin dago, jendeak utzitako arrastoak daude, arratoi mordoak

dago, eta baita katuak ere. Gainera, ez daukate edateko urik; litro biko ur botila bat ematen diete eguneko, eta horregaz pasatu behar dute egun osoa. Badute

Egon da igeri egiteko hegatsak eta flotagailu bat hartu eta Turkiatik Greziara igerian etorri denik

janaria, gobernuak ematen diena, baina, itxura denez, jatekoa txar txarra da. Gobernuak dirua ere ematen die, 70na euro hile osoa pasatzeko, lehen baino 20 euro gutxiago. Egoera horretan aurrera egitea oso gogorra da.

Hala ere, denek diote orain jende gutxiago egonda, egoera hobea dela, behintzat lasaigoa. Lehen horrenbeste jende egonda, hainbat herrialdeetakoak, ghetto asko zegoen eta herrialdeen arteko iskanbilak sortzen ziren. Orain asko baretu da hori.

Errefuxiatuak Turkiatik heltzen dira irlara, ezta?

Bai. Kiosera heltzen diren errefuxiatu guztiak Turkiatik datoz, Turkian itsasoratzen dira. Hala ere, bakoitzaren bidaia mundu bat da. Batzuek zailtasunik bako bidaia izaten dute. Beste batzuek, oster, oso bidaia gogorak. Egon da igeri egiteko hegatsak eta flotagailu bat hartu eta igerian etorri denik.

Zuen elkarteak zer egiten du?

Lehen mailako arreta eskaintzen dugu. Eurak ate batera etortzen dira, poliziak kontrola egiten die eta guk triaje antzerako bat egiten diegu. Hor ikusten dugu ea guk artatu ditzakegun edo beste norabaitera bideratu behar ditugun. Askotan ospitalera bideratu behar izan ditugu, ditugun materialak edo baliabideak ez direlako beste munduko ezer. Horrek kontua asko luzatu dezake, eta inpotentzia handia sortzen du.

Asiloa lortu arte egoten dira han.

Bai, eta asiloa lortzea oso gax dago orain. Lehen, kanpamentuko %85i ematen zitzaion asiloa, baina orain pilo bat zorrotz dute araudia eta %85i ez diote asilorik ematen. Beraz, hori ukatzen dietenean kanpamentutik irten behar izaten dute. Gainera, gobernuak ezin ditu hegatskin batean sartu eta euren herrialdera itzuli. Orduan, noraezean geratu, eta askok ihes egiten dute.

Hirigintzako lizitazio batek eztabaida piztu du Elorrioren

ELORRIO • E.H./M.Z.

Elorrioko EAJk ohar batean adierazi du Idoia Buruaga alkateak "irregulartasun larriak" gauzatu dituela hirigintza arloko moldaketa puntual batean, "udal idazkariaren hiru txostenen kontra" egin duelakoan. Jeltzaleen berbetan, auzia izakoz udatik dator. Hau da, Elorrioko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPOan), San Bizente Zabaleta eremuan moldaketa puntual bat egiteko lizitazio publiko batera deitu zuenetik.

Baina Idoia Buruaga alkateak kontrakoa dio. Honela jakinarazi dio ANBOTOrri: "Lasaitasun osoagaz diot. Udalak ez du inongo irregulartasunik egin". Hori dela-eta, alkateak auziaren irakurketa propioa plazaratu du. "Egia da HAPOaren moldaketa puntual hori lizitaziora atera zela. Lizitazioa modu garbian egin zen eta enpresa batek irabazi zuen. Gero, Elkarrekin Podemosek epaitegietara eraman zuen lizitazioa, moldaketa puntuala egin barik HAPO osoa berrikusi behar zela esanez. Beraz, etengabeko judizializazioetan sartu barik, erabaki genuen HAPO osoa berrikusiko genuela. Eta horixe bera onartu genuen apirilean. Beraz, horrek esan gura du moldaketa puntual hori ez doala aurrera. Eta, ondorioz, lizitaturiko kontratu hura bertan behera geratzen dela. Erabaki hau txosten juridiko batean oinarrituta dago, beraz, irregulartasunak, zero", bukatu du Buruagak

Atxondo Harrera Herria elkarteak hiru gorpu aberriratu ditu dagoeneko

Diru bilketagaz aurrera jarraitzen dute Atxondon, gainerako gorpuak aberriratzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondo Harrera Herria elkarteak jakinarazi duenez, Cadizen hildako hiru errefuxiatuen gorpuak aberriratzeko lortu dute. "Atxondarren eta Durangaldeko gainerako herritarren laguntzagaz, hiru gorpu aberriratu ditugu Atxondon", azaldu dute Harrera taldekoek.

Orain, gainerako gorpuak aberriratzeko helburu Atxondoko Harrera Herria elkarteak. "Gorpu bat identifikatuta dugu eta bes-

te bi identifikatzeko zain gaude", jakinarazi dute.

Udalari kritika

Bestalde, Harrera taldekoek prentsa ohar bat kaleratu zuten joan zen astean, Atxondoko Udalak gai honetan izan duen jarrera salatzen. "Guk isilean lan egin dugu gaur arte. Ez dugu inongo fokurik gura gure gainean. Laguntza baino ez dugu gura, eta ez dugu onartuko alderdien arteko

borroka batean gure izena eta izana nahastea, eta aldi berean

Atxondo Harrera Herria elkarteak oharra kaleratu dute udalaren jarrera salatzen

elkartera politikarien interesen erabiltzea", kritikatu dute prentsa ohar horretan.

Asteburuan Gaztainerre ospatuko dute Berrizen

Zapatuan egingo dute ekimena, Elkartasun Karabanarako elikagaiak biltzeko kanpainaren barruan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Tradizioa da Gaztainerre Eguna ospatzea Berrizen. Baina azken urteotan, pandemia dela-eta, ezin izan dute ospatu. Hala ere, bueltan da aurten. Berriztarrek zapatuan ospatuko dute, azaroak 6, 18:00etan hasita, Olakueta plazan.

Aurreko urteetan lez, zorro bete gaztainerren truke, berriztarrek sardinak oliotan, arroza,


azukrea, pasta, konpresak, atuna oliotan, lekaleak eta antzeko produktuak eman beharko dituzte.

Zapatuan jasoko dituzten elikagai horiek Elkartasun Karabanarako elikagaiak biltzeko kanpainaren barruan daude. Biltzen duten guztia Saharara bidaltzeko izango dela jakinarazi dute antolatzaileek, hau da, Berrizko Udalak eta Berrizko Udaltaldeak.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gida parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

2030era bitarteko erronken txostena aurkeztuko dute zapatuan Otxandion

Aurrera begirako ekintza planaren aurkezpena Mainondoko gimnasioan izango da



Ekainera begira, udal ordezkariak herritarrekin eta eragile askogaz batu dira; gobernantza kolaboratibo bat sustatzea da helburua.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak prozesu parte hartzaile bat egin du herritarrekin eta herriko eragileekin. Udalerriko diagnostiko bat eginda, ahulguneak identifikatzea zen helburua, gero horiek kontuan hartuta 2030era bitarteko plangintza egituratzeko. Orain, plan hori aurkezteko garaia heldu da. Bihar aurkeztuko dute, 10:30ean, Mainondoko gimnasioan. Itzulpen eta

Ahulguneak identifikatzea eta hurrengo hamarkadara begirako ekintza plana egituratzea da helburua

Herritarrekin, herri eragileekin eta establezimenduetako ordezkariekin batu dira

zaintza zerbitzua eskainiko dituztela iragarri dute udaletik.

Diagnostiko prozesuak ekainera arte iraun zuen eta 120 bat otxandiarrek parte hartu zuten: 20 herritarregaz banakako elkarrizketak egin zituzten; baita 16 eragileguz eta 21 establezimendutako ordezkariekin ere. Azkenik, herri batzar batean 45 otxandiar batu ziren.

Mallabiko frontenis maratoiko txapelak Errioxara eta Salamancara joan dira

MALLABIA • J.D.

Joan zen asteburuan, maila handiko emakumeen frontenis maratoia lehiatu zuten Mallabian. Buruz buruko finala Lorena Barrón errioxarrak eta Ana García salamancarrak jokatu zuten, zapatuan. Partidu erdira arte, norgehiagoka lehiatua izan zen. Hortik aurrera, Barrón gehiago izan zen eta berak jantzi zuen txapela (12-8). 100 euroko saria ere irabazi zuen.

Domekan, binakako txapelketan, Barrónek eta García bikotea osatu zuten eta txapela jantzi zuten Inge Sancristobal gueñestarrari eta Laura Sáez gasteiztarrari 8-6 irabazita. 250 euroko saria irabazi zuten.



Mañarian irteerak antolatu dituzte, bertako auzo eta baserriak hobeto ezagutzeko

Lehenengo irteera urrian egin zuten, Aldebarrena auzotik, Andra Mari Aisialdi eta Kultura elkarteak antolatuta; hurrengo azaroaren 21ean izango da, Aldebarrieta auzotik zehar

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Andra Mari Aisialdi eta Kultura elkarteak ekimen berri bat martxan ipini du. Bost ibilaldi antolatu ditu, herriko auzoak eta baserriak ezagutarazteko. Lehenengo urrian izan zen; hurrengoak azaroan eta 2022ko lehenengo hiruhilekoan izango dira. Parte hartzaileek auzo bakoitzean dau-

den baserrien edo dagoeneko desagertuta dauden baserrien zerrenda bat jasoko dute, eta ibilbidea egin ahala ikusi ahalko dituzte. Zerrenda hori egiteko, herriko historian aditua den Jon Arzubi Etxanobe mañariarraren lana azpimarratu dute antolatzailuek. Arzubiak askotariko azalpenak ere emango ditu ibilaldi bakoitzean.

Urriko lehenengo irteeran, Aldebarrena auzotik ibili ziren. Bigarrena azaroaren 21ean izango da, Aldebarrieta auzotik. 2022ko urtarrilaren 9an, Arrueta auzoa ezagutuko dute. Azkeneko irteera bietan, otsailaren 20an eta martxoaren 20an, Aldegoiena auzotik ibiliko dira. Irteerak 10:00etan hasiko dira, Mañariko plazan.



Urrian Aldebarrena auzora egindako irteerako irudia; 20 bat lagunek parte hartu zuten.

Lorea Muñoz alkateak Izurtzako semaforoaren defentsa egin du

Hainbat gidarik euren kexa agertu dute azken aspaldian

IZURTZA • J.D.

Izurtzako semaforo sistema martxan ipini zenetik, autoen gehiegizko abiadura gutxitu egin dela adierazi izan dute udaletik. Baina denak ez daude gustura. Gidari batzuek euren kexa azaldu dute, semaforoa gehiegitan edo euren us-tez arrazoirik barik gorri ipintzen delako. Udalean zein Aldundian kexatu dira, baina baita kalean ere eta aurrez aurre udaletxean,

Lorea Muñoz alkatearen esanetan. Ildo horretatik, Muñozek semaforoaren balioa gogoratu du: "Ez ziren kasualitatez ipini, urte askoan herrigunetik pasatu izan diren ibilgailuen gehieneko abiadura kontrolatzeko eta herritarren segurtasuna hobetzeko baino". Ildo horretatik, alkateak "errespetua" eskatu du, eta, orokorrean, semaforoaren gaian herritarren aldeko iritzia jaso duela azaldu du.



Otsail ingurutik martxan da 'olatu berdea' izena duen Izurtzako semaforo sistema.

Tanttaka Teatroaren 'Ameriketako bidaia' antzezlanak zabalduko du Antzerkiño jaialdiaren VI. edizioa

Domekan taularatuko dute obra, 19:00etan. Azaroaren 7tik 27ra bitartean, sei antzezlan profesional eta amateur oholtzaratuko dituzte Abadiñoko Errota Kultur Etxeko aretoan. Banarte antzerki taldeak antolatatu du edizioa, udalagaz



'Ameriketako bidaia' antzezlaneko irudia. TANTTAKA TEATROA.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Ailegatu da teloi gorria zabaltzeko unea. Banarte antzerki konpainiak eta udaleko Kultura Sailak Antzerkiño antzerki jaialdiaren seigarren edizioa prestatu dute. Asteburu honetan hasi eta azaroaren amaierara bitartean, sei antzezlan taularatuko dituzte

Argi Abad: "Ohiko zirkuitu komertzialetan ez dauden obrak ikusteko aukera ematen du" Antzerkiñoak

Traña-Matienako Errota Kultur Etxean. Jaialdiari hasiera emateko ohorea eta ardura Tanttaka konpainiak izango du. Domeka

honetan, *Ameriketako bidaia* obra taularatuko dute. Obra Patxo Telleriaren ideia originala da eta Mireia Gabilondok zuzendu du. Ikasturte batean ikasketak egitera Ameriketako Estatu Batuetara doazen nerabe biren istorioa kontatuko dute. Emanaldia 19:00etan izango da eta sarrerak bost euro balio ditu.

Berezko ezaugarria

Datozen asteburuetan, antzerki zikloaren emanaldi gehiago etorririko da. Jaialdiko antolatzaileek azpimarratu dutenez, Antzerkiñoaren ezaugarrietariko bat antzerki konpainia amateurren presentzia "nabarmena" da. Argi Abad kultura zinegotziak ildo horretatik berba egin du. Azpimarratu du antzerki jaialdiak "ohiko zirkuitu komertzialetan ez dauden antzezlanak ikusteko aukera" ematen duela.

Astekari honetako Agenda atalean, asteburu honetako eta hurrengoko antzerki obren xehetasunak topatu daitezke.

Abadiñoko gobernu taldeak 2022ko zergak eta tasak izoztea erabaki du

EH Bilduk dio "bideragarria" dela tasak jaitea. Eskualdeko IBI zergarik altuena Abadiñokoa dela esan du



Abadiñoko udalbatzak urrian egindako osoko bilkura.

ABADIÑO • A.M.

Zergek eta tasek bere horretan jarraituko dute Abadiñon. EAJk eta Independienteek osaturiko udal gobernu taldeak ordenantza fiskalak izoztu egingo dituela aurreratu zuen urriko osoko bilkuran: "Tasak izoztea erabaki dugu, batez ere. Garai zailak dira eta familiarik zaurgarrienak babestu behar ditugu", azpimarratu zuen Mikel Garaizabal alkateak.

Oposizioa, baina, ez dago horregaz ados. EH Bilduren ustez, "bideragarria" litzateke zergetan eta tasetan jaitsierak aplikatzea. "Eskualdeko IBI eta IAE zergarik altuenak ditugu. Orain bost urtetik, udalak 750.000 euro gehiago jasotzen ditu zerga horien bitartez", adierazi zuen Mikel Urrutia bozeramaileak. Bestalde, udal gobernu taldeari leporatu zion Abadiño orain 10-15 urteko ikuspegian "kateatuta" egotea. Herriak "etorkizunerako erronkei erantzungo dien gobernu bat" behar duela gaineratu zuen Urrutiak.

Sallabentetik Olarreagaraino doan espaloia hobetuko dute

Gaur egun, herritarrek oinezkoentzako pasabide bitik joan behar izaten dute errepedearen zati hori igartzeko

ZALDIBAR • A.M.

Sallabenteko biribilgunetik Eibarrreraino (Gipuzkoa) doan BI-3344 errepedeko espaloian segurtasun neurri berriak ipiniko dituzte. "Egungo espaloia arriskutsua izateaz gainera, babesik ez duenez ez

da nahikoa oinezko denak hartzeko", azaldu dute udal iturriek. Eibar eta Ermua artean mugitzeko, herritar ugari erabiltzen dute bidearen zati hori. Aldundiak egingo ditu lanak, Zaldibarko Udalak proposamena helarazi ondoren.



BI-3344 errepedeko espaloia.

Seguros Bilbao
RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

IURRETA
Bizi eta Gozatu
MUSIKALDIA
IBARRETXE KULTUR ETXEAN

AZAROAK 5
19:00ETAN
DUO ORREAGA
"DEL BARROCO AL JAZZ"
Piano: Roquel Vergara Flauta: Ana Sorchie

AZAROAK 12
19:00ETAN
TRIO SYRINX
"LA FLAUTA EN EL CLASICISMO EUROPEO"
Flauta: Iñaki Casallo Flauta: Roberto Casallo Violonkela: Jonne Toru

AZAROAK 19
19:00ETAN
ESTITXU
"IXILIK DAUDE HARRIAK"
Aukara derrigerezkoa
- Gel hidroakozondakoa izango da
- Eserita

Gonbidapenak Barretxe Kultur Etxean jasoko dira ikusizuzenaren aurreko astean edo egunetan bertan 18:30etara aurrera.

Bizkaia

Zuberoako ikastolen aldeko 'Ikaskoli' otzarak Durangaldeko hainbat puntutan jaso daitezke

Eskariak 'ikaskoli.eus' orrian egin behar dira. Gero, banaketa, Durangaldera bideratuko da



Zuberoako ikastoletako ikasleak, gurasoak eta ekoizleak.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ikaskoli kanpaina bueltan da. Zuberoako ikastolek berriro ere martxan ipini dute hango zentro biei diruz laguntzeko eta Zuberoako ekoizleen produktua ezagutarazteko kanpaina. Kanpainari bultzada eman gura dionak www.ikaskoli.eus atarira jo eta otzarak eskatu ditzake. Hiru otzara mota eskatu ditzake: Orhi, Irati edo Ahüzki. Bakoitza Zuberoako produktu sorta batez osatuta dago, eta 70, 55 eta 40 euro balio dute, hurrenez hurren.

Salmentekin baturiko diruagaz Zuberoako ikastola biei lagunduko diete. Kanpainaren bultzatzaileek gogorarazi dute euskararen egoera zaurgarria dela Ipar Euskal Herrian. Hizkuntzak ez du lege babes ofizialik han. Eta Zuberoan, etxe barruko transmisioa "eteten" dabilela igarri dute. Horregaitik, hango ikastola biak dira euskararen transmisioa bermatzen duten eragileak.

Otzarak Durangaldean jaso

Eskariak web orrian egin eta gero, otzarak zein lekutan jaso gura diren markatu behar da. Durangaldearen kasuan, hiru dira jasotzeko puntuak: Durangoko Kurutzia ikastola eta Intxaurre taberna, eta Zornotzako Andra Mari ikastola.

Politikan

Neskutz Rodriguez
Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Sare sozialetako bizitza birtuala

Duela hilabete batzuk *Black Mirror* teleaileko *Nosedive* izeneko atala ikusi nuen. Bertan, pertsonak sare sozialetan duten interakzioaren arabera sailkatzen dira, eta puntuazio bat eman diezaiekete gainerako kontaktuei, sarean duten parte-hartzearen eta bizitza errealean dituzten ekintzen arabera. Kapituluak gogoeta egiten du sareetan jarduteak herritarrei eragiten dien askatasun-galeraz, eta horrek ez du uzten norbera izaten, baizik eta politikoki zuzena denaren estandarrerara egokitzea behar-tzen du, zentsuratua izateko edo herritar baztertua izateko beldurragatik.

Sare sozialen gaur egungo erabileraz eta gure bizitza errealean ematen diegun garrantziaz pentsarazi zidan. Batzuetan neure burua justifikatzen dut esanez informatuta egoteko edo beste era batera egongo ez nintzatekeen pertsonekin harremanetan egoteko balio didatela. Hala ere, kapitulu hau ikusi arte, ez nintzen benetan jabetu zer den mundu birtual honetan egotea: nire datuak ematea publizitatea bidal diezadaten "onartzea" edota argitalpen batean "like" pila bat izateak sortzen duen "subidoiaz" ere gozatzea.

Gabriel García Marquezek "komunikatzen ez dena, ez da existitzen" esan zuen. Baina sare sozialekin dena jakinarazten dugu, filtrorik gabe eta, batez ere, ahalik eta "like" gehien edukitzeko helburuarekin.

Amets egiteko, pentsatzeko eta aurrez aurre hitz egiteko uneak alde batera utzi ditut (ditugu). Beharbada, bizitza errealean presentzia handiagoa izateko garaia da, *Nosedive* kapituluaren errealitate bihurtu aurretik.

Durangaldea asteen

Erika Lagoma bertsolariak hirugarren egin du Altsasuko finalurrekoan

Durangaldea | Erika Lagoma bertsolaria lesakarra da sortzez, baina urteak dira Durangaldera etorri eta hemen bizi dela. Joan zen asteburuan, 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehenengo finalurrekoa jokatu zen Altsasuko Iortia kulturgunean. Han aritu ziren kantuan Endika Legarra, Eneko Lazkoz, Xabat Illarregi, Ekhiñe Zapiain, Oier Lakuntza eta Erika Lagoma bera. Lazkozek irabazi zuen saioa, 489 puntu lortuta; Lagomak 442 lortu zituen, eta badu aukera finalera sailkatzeko. Azaroaren 28an jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala, Iruñean. Bestalde, Imanol Uribe izan zen garaile joan zen asteburuan Elorrioren jokatu zen Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketan. Garaipen horri eskerrak, Uriak finalurrekoetan aritzeko txartela eskuratu du. Etxeko ordezkari bakarra Igor Galarza abadiñarra izan zen. Galarzak hirugarren amaitu zuen saioa, 427 puntugaz.

Arte grafikoetako talentua ezagutarazteko erakusketa eta tailerra Zornotzan

Zornotza | Zornotzako Udalak Open Itinera 2021 erakusketa ibiltaria antolatu du azaroaren 2tik 20rako, arte grafikoan aritzen direnen lana ikusarazteko. Erakusketak 32 pieza ditu eta arte grafikoaren askotariko teknikak eta prozesuak biltzen ditu. Azaroaren 20an *Punta lehorra azetatoaren gainean* tailerra eskainiko dute. Ikastaroan sorkuntza faseak landuko dituzte.



Iurretako Abadetxearen izaeraz hausnartuko dute azaroaren 13an

Iurreta | Iazko urrian Abadetxea zabaldu zuten berriro. Denbora tarte honetan, eraikina egokitzeaz gainera, hainbat ekintza antolatu dute. Hala ere, pandemiaren eraginez, "nahikoa mugatuta" egon direla diote bertako arduradunek. Orain, aurrera begira jarri gura dute. Alde batetik, Abadetxearen jarduna eta izaera zehaztu gura dituzte. Bertan landu eta bultzatu gura dituzten balioei buruzko hausnarketa egin gura dute; hau da, herri mailan zein norabide hartuko duen. Bestetik, Abadetxearen espazioaren funtzionamenduz ere gogoeta egin gura dute. Bileraz azaroaren 13an izango da, 11:00etan. Ondoren, bazkari herrikoia egingo dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

BURUARI KLIK!



LETRA ZOPA

Topatu baserriko hamar animalia hauek letra zopa honetan.

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J | A | H | D | P | Y | F | X | L | T | Q | E | D | V |
| L | S | O | C | O | K | P | T | X | E | R | R | I | A |
| Z | T | K | Y | Q | Y | H | B | E | A | I | D | V | V |
| A | O | A | E | Q | A | L | T | R | Y | O | X | T | M |
| L | A | X | W | D | L | I | G | E | L | A | H | X | G |
| D | F | F | Q | F | Y | J | B | G | C | N | M | A | R |
| I | R | H | U | U | F | W | M | C | C | O | C | K | Y |
| A | B | T | P | N | M | T | M | L | H | B | W | U | K |
| L | E | A | H | A | T | E | A | K | Q | I | X | R | P |
| I | H | V | R | O | P | Z | O | D | P | W | N | R | E |
| M | I | Q | B | O | I | A | I | I | Q | X | F | A | S |
| T | A | M | F | P | N | Y | E | A | L | K | E | W | A |
| H | Z | L | A | R | D | I | A | Q | J | O | P | O | E |
| X | V | Y | Y | A | B | K | F | J | D | S | A | V | V |

ZENBATU




Belar meta honetan
zenbat txita ikusten
dituzu?



ORDENEAN JARRI

Ordenatu batetik seira arrautzaren eboluzioa.



BIKOTEAK SORTU

Beheko txakur hauek guztiek euren bikotekidea dute.
Bazara gai denak topatzeko?




MARGOTU

Margotu itzazu beheko balkoi honetako loreontzietan falta diren loreak.



PUNTUAK LOTU

Lotu beheko puntuak marra bakar batez,
eta gero margotu irudia gurago duzun moduan.


































Zein animalia da?
























.....

ESAERA ZAHARRA

Beheko alfabetoari jarraituta, bete lauki bakoitza dagokion letragaz.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|--|---|---|
|  |  |  |  |  |  | | | | |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | | | | |
|  |  |  |  |  |  |  | | | |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | | |
|  |  |  |  |  |  |  |  | | |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | | |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |  |  |  |
| A | B | D | E | F | G | H | I |
|  |  |  |  |  |  |  |  |
| J | K | L | M | N | Ñ | O | P |
|  |  |  |  |  |  |  | |
| R | S | T | U | X | Y | Z | |

MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko txoriek duten zenbakia kontuan hartuta.



= 7



= 3



+



-



=



+



/



=



= 2



= 1



-







x



=




LABIRINTOIA



SEKUENTZIARI JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.

2 → 3 ↘ 1 ↑ 2 ↗ 2 ↖ 7 → 6 ↘
6 ↙ 7 ← 2 ↗ 2 ↖ 1 ↑ 3 ↙ 2 ←
1 ↗ 2 ↑ 1 ↗ 1 ↖ 2 ↑ 1 ↖





Spa (Avishai Cohen-i gorazarre)

MUSIKA ELORRIO :: Azaroaren 12an

Arriolako XXXII. Jazz Blues Jaialdia hasiko dute Elorrion

Alex López kontrabaxu-jotzaileak emango dio hasiera Arriolako XXXII. Jazz Blues Jaialdiari, azken hamarkadetan jazz munduan eraginik handienetarikoa izan duen Avishai Cohen musikariari egindako omenaldiagaz. Spa (Sensei Plays Avishai) izenagaz, kontrabaxu-jotzaile ospetsuaren diskografian murgilduko da Lopez, azaroaren

12an. Zazpikote formatuan arituko da, Euskal Herriko izen handiko jazz musikariak lagun dituela.

Hilaren 13an, Nico Wayne Toussaint harmonizista igoko da Arriolako oholtzara. Bere benauldiko abeslari eta aho-soinujerik onenetarikoa da, Europan eta Ipar Amerikan txalotua. Kontzertu biak 20:00etan hasiko dira.

Azaroaren 5ean

DURANGO musika

Puro Relajo, 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika

Organo kontzertua: Ignacio Arakistainek (organista) eta Xabier Barriolak (tenorea) Valentín Larrea Yturberen lanak eskainiko dituzte, 20:15ean, San Frantzisko elizan.

ELORRIO antzerkia

'Harri, orri, har' (Pez Limbo), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA musika

'Del barroco al jazz' (Duo Orreaga), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

IURRETA kirola

Crossfit familiarra, 17:00etan, Askondon. Umeei eta helduei zuzenduta. 'Azaroa, osasunaren hilabetetea' ekimenaren barruan.

Azaroaren 5ean eta 6an

DURANGO merkatu txikia

Mendiko merkatu txikia, Alpino Mendi Taldeak Goienkalen duen egoitzan. Gaur, 17:00etatik 21:00etara. Bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Azaroaren 6an

BERRIZ gazteñerre

Gazteñerre, 18:00etan, Olakueta plazan. Saharako elikagai bilketa ere egingo dute.

BERRIZ antzerkia

'Zoaz pake santuan' (Txalo Produzkieok) 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO dantza

Dantza modernoa eta urbanoa (L'Atelier eskola), 18:00etan, Landako Gunean.

ZORNOTZA antzerkia

'Altsasu' (La Dramática Errante), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 7an

ABADIÑO antzerkia

'Ameriketako bidaia' (Ttanttaka Teatro), 19:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO musika

Sugarri fanfarrea, 18:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO antzerkia

'Etxerik txikiena' (Yarleku konpainia), 17:00etan, Arriola antzokian.

Azaroaren 9an

ABADIÑO irakurketa

Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Mikel Antzak dinamizatuta.

ZORNOTZA zinekluba

'La metamorfosis de los pájaros' (jatorrizko bertsioan), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 12an

DURANGO musika

Mikel Urdangarin, 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika

Pol Alvarez organista, 20:15ean, Andra Mariko basilikan.

IURRETA musika

'La flauta en el clasicismo europeo' (Trio Syrins), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia

'Album' (Formol Laborategia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

ZORNOTZA jardunaldia

'Euskal Herriko Doinuak': Irrintzi ikastaroa (Amaia Gartzia), 18:00etan, Etxanon. **Irrintzibira**, 20:00etan. **Erromeria: Soinutxiki**, 20:30ean.

Azaroaren 13an

ABADIÑO musika

Jean Baptiste Dupont organista, 19:00etan, San Trokaz elizan. Bizkaiko Hotsak Diego de Amezua XVI. Organo Jaialdiaren eskutik.

ABADIÑO antzerkia

'Cuando estamos más tranquilos' (La Canilla Teatro), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ musika

Ede, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'Altsasu' (La Dramática Errante), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

ZORNOTZA jardunaldia

'Euskal Herriko Doinuak': Musika tresnak egiteko tailerra (Turukutupa), 12:00etan, Etxanon. **Kontzertua: Turukutupa**, 13:00etan. **Bazkaria**, 14:30ean. **Kontzertua: Inshala**, 16:00etan. **Dantza tailer gidatua (EinGO taldea eta Patxi Montero)**, ume eta gurasoentzat, 17:00etan eta 20:00etan. **'Jantzari. Tradizioa eta parekidetasuna' dokumentala**, 18:00etan. Ondoren, **'Erraiak'**.

Azaroaren 14an

ABADIÑO antzerkia

'Siempre en otoño' (Tela Marinera), 19:00etan, Errota kultur etxean.

ZORNOTZA jardunaldia

Euskal Herriko Doinuak: Euskal Herriko Dantzak, 12:00etan, Etxanon. Etxanoko Zantzarrek eta Etxanoko dantza taldeak lagunduta.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **El buen patrón**
barikua 5: 19:00
domeka 7: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Eternals**
barikua 5: 19:30/21:00
zapatua 6: 17:00/18:00/21:00
domeka 7: 17:00/19:30
astelehena 8: 19:00
martitzena 9: 19:00
eguzatena 10: 19:00

• **Santos criminales**
barikua 5: 19:30/22:00
zapatua 6: 17:00/19:30/22:00
domeka 7: 17:30/20:00
astelehena 8: 18:00/20:15
martitzena 9: 18:00/20:15
eguzatena 10: 18:00/20:15

• **Supernova**
barikua 5: 19:00
zapatua 6: 20:00/22:00
domeka 7: 17:30/20:00
astelehena 8: 18:00/20:15
martitzena 9: 18:00/20:15
eguzatena 10: 18:00/20:15
• **Elkinak**
domeka 7: 12:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **El buen patrón**
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **El buen patrón**
barikua 5: 20:00
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:15
Zutik!
domeka 7: 17:00



Amaia Egidazu Arrube

Biologoa, hezitzailea
DURANGO | 1981

“Literatura oso garrantzitsua da umeein lotura sortzeko, atentzio osoa eskatzen du eta”

Egidazu durangarrak 'Dorotea' album ilustratua kaleratu du oraintsu, 2021eko Etxepare saria irabazi eta gero; Arteka liburu-dendan hiru errezitaldi egingo ditu zapatuan, eta, horrez gainera, ilustrazio originalak ikusgai egongo dira

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

'Dorotea' album ilustratuaren prozesua "Plazeragaz loturiko jolas" baten modukoa izan da Amaia Egidazu durangarrarentzat. Bera arduratu da testuak idazteaz eta marrazkiak egiteaz.

Nor da Dorotea?

Adineko emakume bat da Dorotea, landa inguruan bizi dena, bakarrik. Etxean arazo potolo bat izango du, eta, horri konponbidea eman guran, egoera korapilatu egingo da. Baina sopersa bat izango du amaieran. Esango nuke ipuinetan ezagutzen dugun estereotipoetatik ihes egiten duen pertsonaia dela, emakume ekin-tzailea, indar handikoa, arazoei aurre egiten diena; badu bere alde

gozoa ere, ondo pasatzea gustatzen zaio eta karakter handiko emakumea da.

Biologoa zara formakuntzaz. Horrek badu zerikusirik edukia naturan kokatzeagaz?

Liburuan hainbat gauza batzen dut, tartean natura. Naturazalea naiz eta animaliek ere betidanik piztu didate interesa. Umorea ere sartu dut. Hartu-eman zuzena dut umeein; biren ama naiz eta eskola txiki batean lan egiten dut. Euren freskotasuna jasotzen dut egunero, eta eurentzako moduko liburu bat egin dudala uste dut. Horrez gainera, asko gustatzen zait hizkuntzagaz jolastea; testua sinplea, errepikakorra eta errimaz josia da, eta umeei horixe gustatzen zaiela uste dut.

Zu haur literatur zalea zara. Zelako garrantzia du umeentzat?

Ez gara kontziente literaturak zelako garrantzia duen umeentzat. Literatura oso garrantzitsua da umeein lotura eta hartu-emanak sortzeko, atentzio osoa eskatzen diezun tarte bat da eta. Hizkuntza eurenenganatzeko eta irakurzaletasuna garatzeko ere garrantzitsua da.

Zure lehenengo liburua da eta zeu arduratu zara denaz. Hasierako asmoa zen hori?

Proiektu honen helburua ez zen liburu bat argitaratzea. Niretzat jolas bat izan da, plazeragaz lotu dudana zerbait. Esan dudana moduan, asko gustatzen zait hizkuntzagaz jolastea; koadernotxo

“Asko gustatzen zait hizkuntzagaz jolastea; testua sinplea, errepikakorra eta errimaz josia da eta umeei horixe gustatzen zaiela uste dut”

batean idatzi izan ditut poemak, testu txikiak, jolasak errimekin... Istorio hau orain urte pare bat idatzi nuen, eta berriro berreskuratu nuenean, burura irudi komiko batzuk etorri zitzaizkidan. Ez naiz ilustratzailea, baina txikitan oso gogoko nuen marraztea. Azken urteetan, berreskuratu egin dut marrazketa, hainbat ikastarotan

parte hartuta. Berbarok antolatuta Irati Eguren eskaintako batean, Bizenta Mogelen Eguren eta Maite Gurrutxagak eskaintakoan, eta Iurretako liburutegian beste batean, Lorena Martinez Oronozek eskaintakoan. Pandemia sasoiaren umeen txokoaren alboan txoko bat prestatu nuen niretzat, tenpera, artazi, kola eta abarrekin. Eta hortxe hasi zen dena esperimentatzen. Etxepare sarietara, batez ere, neure buruari epe batzuk ipintzeko aurkeztu nuen.

Normalean, album ilustratuetan bikoteka lan egiten da, baina kasu honetan, niri biak interesatzen zaizkidanez, eta esperimentatzeko gogoa eduki dudanez, ba, horrela izan da. Niretzat inbestigazio lan bat izan da, aurretik ez nekielako liburu bat zelan egin. Liburu bat osorik zelan egituratu ikasi behar izan dut eta oso esperimentzia ona izan da.

Errepikatze modukoa?

Betiere, plazeragaz lotuta badao. Hainbat proiektu dut buruan, poemak, ipuinak, album ilustratuak... baina ez dut korrika ibili gura, edo presiopean. Egia esan, ez naiz gauzak epe luzera pentsatzekoa. Orain honegaz disfrutatzen nabil. *Dorotea* kaleratu dut, eta aurkezpenak ditut. Horixe dut buruan. Aurretik ipuin kontaketa egin izan ditut, 0tik 3 urtera bitarteko umeen irakurketa kluba gidatu dut, baina arlo horretan ez naiz profesionala. Egingo ditudan lehenengo aurkez-

penak dira hauek, eta gozatu egin gura dut.

Etxepare saria jasota, zelan geratu zara?

Sorpresa bat izan zen eta pozez gainezka nago. Askotan ez zaio norbere lanari behar den besteko balioa ematen, eta horrela beste era batera ikusi dezakezu. Bestelako proiektuei ekiteko motibazioa ere pizten dit. Horrez gainera, kontaktuak egin ditut orain, eta argitaletxe batek zelan funtzionatu dezakeen ikusi dut. Oraindino gauza mordo bat dut ikasteko.

“Azken urteetan, berreskuratu egin dut marrazketa, hainbat ikastarotan parte hartuta”

Zer ikusiko du Artekako erakusketara doanak?

Erakusketan ilustrazio originalak daude, collage teknikagaz egini-koak, adibidez; lanen testurak ikusiko dira bertan, bolumenak... inperfekzioaren aldarrikapena ere bada (barrez).

Tarte gozo bat pasatuko dugu. Istorioak kontatzean egundoko konexioa lortzen da umeein, eta itzelean gozatzen dut horregaz. Haurren begiradak, erantzunak, mundua ulertzeko modua, freskotasuna... niretzat plazer bat da hori eurekin partekatzea.



Karme Gorroño, Joseba Sarrionandia, Mikel Valverde eta Peru Magdalena.

Tristura eta nazka, Sarrionandiaren eta Magdalenaren lan berrien ardatza

Durangaldeko egile biek Kuku! bildumako ale bana egin dute; asteen aurkeztu dituzte

LITERATURA • A.M.

Kuku! bildumagaz, Ikaselkar hezkuntza argitaletxeak urte bitik gorako hurrekin oinarritzko emozioak lantzeko baliabide sorta eskaini gura du. Oinarritzko sei emozioak lantzeko —haserrea, sorpresa, poza, beldurra, tristura eta nazka—, irakurleak ipuin bana aurkituko du bilduman. Bertan parte hartu dute Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak eta Peru Magdalena idazle durangarrak. Magdalenak, Mikel Valverde ilustratzaileagaz batera, nazka abiapuntu duen liburua osatu du; Bestalde,

Sarrionandiak tristura abiapuntu duen album ilustratua sortu du, Irrimarrak elkartegaz.

Egileek "ondoez bare eta iraunkor" lez definitu dute tristura aurkezpenean. "Nahigabeak edozeinen gogoa hartu dezake oharkabean. Baina badago norbait hemen lagunari bizipozaz eta alaitasunaz berba egiteko". Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak Irrimarra elkartea osatzen duten Irene Iurrettagaz eta Karme Gorroñogaz batera sortu du *Tristura*. Bestalde, Peru Magdalenak nazka abiapuntu duen liburua osatu du, Mikel

Valverde ilustratzaile gasteiztarrazagaz batera. "Zer da nazka? Noiz sentitzen dugu? Gauza berdinek ematen al digute nazka?", galderak egin ditu.

Sei aleko bilduma

Liburu ilustratu bi hauekin batera, honako album hauek dira Kuku! bilduma osatzen dutenak: Agurtzane Ortiz eta Enrique Morenteren *Sorpresal*; Iñigo Astiz eta Leire Salaberriaren *Haserrea*; Karmele Jaio eta Mikel Casalen *Putz egin eta ikusiko duzu*; eta Maite Mutuberriaren *Irrimola*.

Altsasuko kasuaren obra Zornotzara heldu da

Koxka tabernako liskarrean oinarritzen den lana Zornotza Aretoan eskainiko dute, zapatuan, 20:00etan

ANTZERKIGINTZA • A.M.

La Dramática Errante antzerki konpainiak taula gainera eraman du azken urteetako auzirik mediatikoenetarikoa. 2016ko urrian, Altsasuko (Nafarroa) Koxka tabernan guardia zibil bik eta euren bikotekideek herriko hainbat gaztegaz izandako liskarraren harira Epainiako Auzitegi Nazionalak zortzi gazte altsasuar epaitu eta kartzelaratu zituen. Epaiketa horretako transkripzioak baliatuta, liskar hori deskribatzen duen

antzezlan Zornotzan eskainiko dute, zapatuan. "Bizikidetzari ekarpena" egin gura diote egileek. Urrian estreinatu zuten antzezlan, Bilboko Arriaga antzokian. Maria Goirizelaiak zuzendu du pieza, eta Egoitz Sánchez, Aitor Borobia, Ane Pikaza eta Nagore González dira aktoreak. Zornotzan ez ezik, azaroan Durangoko San Agustinen (azaroaren 13an) eta Elorrioko Arriola antzokian (azaroaren 26an) ere taularatuko dute.



'Altsasu'.

Gai librean

Isilaraziak (IV)

Askok dugu buruan 1896ko Lumière anaiek egindako film laburra. Tren bat geltokira iristen. Historiako lehenengo pelikula izan zen, 50 segundoko iraupenekoa. Baina ziur nago gutxi batzuek (edo inork ere ez) ez dutela noiz entzun *La fée aux choux* (Azaburuen maitagarria) filmaren izenburua. Lumière anaien filma baino hilabete batzuk geroago egin zen minutu bat eta 7 segundoko film laburra. Historiako lehenengoa istorio bat kontatzen. Gaur egungo filmek egiten dutena, alegia. Beti esan izan da Georges Mélièsen *Ilargira bidaia* izan zela istorio bat kontatzen zuen lehenengo filma, baina ez da egia gordina. Eta orduan, zergatik ez dugu inoiz entzun film horren izenburua? Edo zergatik ez ditugu pelikula horren irudiak buruan? Erantzuna erraza da: zuzendaria emakumea zelako.



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

Ziur nago gutxi batzuek (edo inork ez) ez dutela inoiz entzun 'La fée aux choux' filmaren izenburua

1930ean bere memoriak idaztea erabaki zuen, bere izena ez ahazteko. Gaur, Alice Guy-Blache gogoratzen dugu

Alice Guy-Blaché (1873-1968) izan zen historiako lehenengo emakumezko zinema-zuzendaria, lehen aipatutako pelikula horrekin. Bertan emakume batek (Alicek berak) azaburuetatik jaioberriak ateratzen ditu eta lurrean uzten ditu inongo goxotasunik gabe. Frantzia umeak nondik datozen azaltzeko fabulatik ateratako istorioa.

Baina Alice aitzindaria izan zen beste hainbat gauzetan, izan ere lehenengo aldiz lortu zuen irudia eta soinua batera errepresentatzea (1905), hau da, zinema mutua amaitzeko lehenengo pausoak eman zituen. Hori gutxi balitz, historiako lehenengo superproduktzioa izandako *Kristoren bizitza* filma zuzendu zuen 1905ean. Ordu erdiko iraupenarekin eta 300 estra baino gehiagorekin.

1907an ezkondu egin zen eta Amerikako Estatu Batuetara joan zen bizitzera. Bertan bere zinema-ekoiztetxe propioa zabaltu zuen.

Baina bere lana gutxietsia ikusten hasi zenean eta gizonezkoen izenak Aliceren asmakizunen jabe lez ikusi zituenen, 1930ean bere memoriak idaztea erabaki zuen. Bere izena ez ahazteko. Gaur, Alice Guy-Blaché gogoratzen dugu.



David Rúa Sanchez

DKT Taldeko korrikalaria
ATXONDO | 1989

“Helmugara heltzean, lehenengo euskalduna nintzela entzun nuen bozgorailutik eta harritura geratu nintzen”

Durango Kirol Taldeko David Rúa lehenengo euskalduna izan zen Zornotzako nazioarteko kros prestigiotsuan, maila handiko beste korrikalari batzuen aurretik

KROSA • JOSEBA DERTEANO

Uste baino hobeto aritu zinen Zornotzako krosean?

Egun batzuk lehenago 10 kilometroko lasterketa bat egin nuen Laredon, eta banekien ondo nengoena, baina espero baino hobeto aritu nintzen, bai. Krosak ez dira nire terrenoa, eta asfaltorako entrenamendutzat hartuta neukan, egun-pasa lez. Baina hasi zen lasterketa, bat aurreratu, hurrengo ere bai, erritmo onean... Helmugara heltzean, lehenengo euskalduna nintzela entzun nuen bozgorailutik eta harritura geratu nintzen.

Emaitza horrek krosetan gehiago parte hartzera animatzen zaitu?

Lokatzetan korritzea ez zait eroso egiten. Ez nabil txarto, baina hobeto moldatzen naiz asfaltoan.

Krosa, asfaltoa... baina zu triatloietan hasi zinen.

Bai. Duatloietan hasi behar nuen, baina denboraldia amaitu egin zen eta itxaron beharrean triatloietan hasi nintzen. Zeretik hasi nintzen. Banekien igerian, baina teknika entrenamendu beharra dago. Bizikletan, berdin. Pare bat urtean duatloiak eta triatloiak korrikako lasterketekin uztartu nituen, baina aita izan nintzen, seme-alabak heldu ziren, eta duatloi eta triatloiak utzi eta korrika egitea aukeratu nuen.

Korrika egitea baino kirol errazagorik ez dago.

Fisikoki ondo nengoena eta kirolik errazena zen. Etxetik irten eta korrika hasi zintezke. Gaur egun, lanera joan aurretik entrenatzen

naiz normalean, goizeko seiak inguruan.

Bakarkako kirolek zure lehenengo kirola taldeakoa izan zen.

Futboleko jokatu nuen, Elorrion. Baina gazteetatik nagusietarako salto horren aurretik utzi nuen, asko jokatu ez nuela uste nuelako. Gero, areto-futboleko eman nituen bi-hiru urte.

Bakarkako kirol batean aritzeak badu abantailarik taldekako batean aritzeari aldean?

Taldekako kirolak bere gauza onak ditu, baina besteekiko dependetzia handia dago. Denak entrenatzen ez badira, entrenamenduak ez dira konpletuak eta arazoak ekarri ditzake.

“Herri lasterketek eta antzerakoek beste inon aurkitzen ez dudana xarma dute: giroa, animazioa...”

Korrika zeure buruagaz bakarrik haserretu zintezke.

Bai, eta ez pentsa, askotan haserretu naiz neure buruagaz! Lehen beti pentsatzen nuen hobeto egin nezakeela. Ondo irten ez zen lasterketa batean bosgarren amaitu, eta "hirugarren egin behar nuen" eta antzerakoak pentsatzen nituen. Horretan, Donostiako 15 kilome-

troko lasterketa bat mugarri izan zen niretzat. Ondo prestatuta joan, bosgarren amaitu eta bigarren amaitu ez izanaren amorrua nuen. Haserre nengoena. Orduan, momentu batean, konturatu nintzen ez zuela merezi horrela aritzea. Nire lasterketa ikustera emaztea eta seme-alabak etorri, edo lagunak, eta ni bien bitartean haserre, egun-pasa eder bat pasatu beharrean? Ez. Harrezkero, beste modu batera hartzen ditut lasterketak. Azkenean, zaletasun bat da eta ez dut edo ez dugu zertan txarto pasatu.

Atletismo pistan ere aritzen zara, 800 eta 1.500 metroko probetan. Gorputzak ondo darama hain distantzia laburrak luzeagoekin tartekatzea?

Ni menditik edo asfaltotik nator. Hortik pistara aldatzea aldaketa

handia da. Uste dut kontrako bidea errazagoa dela. Pistan hasi eta apurka beste terreno batzuetara egokitzea errazagoa den irudipena dut.

Gorputzari dagokionez, denboraldia zatikatu egin daiteke eta horrela egitea komeni da. Hile batzuetan distantzia laburretan zentratu daiteke eta hori amaitzean luzeagoetan hasi. Eta tartean atsedendaldiak hartu daitezke. Modu horretara, nik biak egin ditzaket, ez dit eragiten, eta prest egoten naiz taldeak pistarako behar banau.

Baina pista baino gurago duzu asfaltoa.

Bai. Herri lasterketek eta antzerakoek beste inon aurkitzen ez dudana xarma dute: giroa, animazioa...

“31.10 da nire markarik onena 10 kilometroko proban. Valentziako krosa aproposa izan daiteke denbora hori hobetzeko”

Atletismoan aritu den familia batetik zatoz. Aita, osaba... Ez zaizu zalerik faltako!

Aita, osaba... eta izeko ere ibili zen! Txikitari aitak beti animatzen ninduen atletismoan aritzera, baina nik futboleko gura nuen. Orain oso pozik daude. Laredora noala? Hara doaz. Madrilerara noala? Ba, Madrilerara doaz.

Zer plan duzu hurrengo hileei begira?

Hurrengo, Lasarteko krosa egingo dut. Klubeko hainbat joango gara, Espainiako txapelketarako sailkatu guran gabiltza eta. Ondoren, Santurtzi-Bilbao dator eta euskaldunen artean ondo sailkatzea gura nuke. 2022ko urtarrilean, Valentziako 10 kilometroko proba korrituko dut. Lasterketa arina da eta marka ona egiteko esperantza dut. 31.10 da nire markarik onena eta 30 minutuak begiz jota ditut. Valentziako krosa, bere ezaugarrietatik, aproposa izan daiteke denbora hori hobetzeko.



Rúa Zornotzako krosako podiumean.

Golak, garaipena eta konfiantza dosia Alcorcon azken sailkatua bisitatu aurretik

Amorebietak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen, eguaztenean, Valladolidi jipoia emanda (4-1)



Lander Olaetxea atzo sarturiko gola taldekideekin ospatzen. SD AMOREBIETA

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Eguaztenean Lezamara joandako Amorebieta taldeko zaleek denboraldiko gozaturik handiena hartu zuten. Urdinek 4-1 irabazi zioten Valladolidi, zazpi jardunaldi galdu barik zeramatzan taldeari, urteko gol festarik handienez. Gainera, Abadiñoko jokalarik bi protagonista izan ziren: Lander Olaetxeak bigarren gola sartu zuen eta Iker Unzuetak hirugarrena.

"Orain arte jokatu dugun partidurik onena izan dela uste dut", adierazi zuen Iñigo Velez de Mendiabala entrenatzaileak partidua amaieran, eta ez zitzaion arrazoirik falta. Amorebietak inspirazioz

beteriko lehenengo zatian biderratu zuen norgehiagoka. 3-1 joan ziren atsedendira, abadiñar bien eta Iñigo Orozko donostiarraren golei eskerrak. Bigarren zatiaren

Abadiñar bi protagonista izan ziren; Iker Unzuetak eta Lander Olaetxeak gol bana sartu zuten

hondarrean, Valladolid hil ala bizi zebilela, Gaizka Larrazabalek borobildu zuen markagailua, kontraeraso batean.

Iker Unzuetak denboraldiko bere lehenengo gola sartu zuen.

Gol garrantzitsua da hile eta erdi lesionatuta eman eta zelaietara oraintsu bueltatu den jokalarientzat. "Hasierako hamaikakoan sartu nintzen, gola sartu nuen eta taldeak hiru puntuak batu zituen. Ezin dut gehiago eskatu", azaldu du aurrelari abadiñarrak.

Valladoliden kontrakoa denboraldiko bigarren garaipena izan da Amorebietarentzat. Jaitsiera postuetan jarraitzen duen arren, konfiantza dosi ona da taldearentzat, domekan Alcorcon bisitatu aurretik. Bolada onari jarraipena emateko aukera dute azken sailkatuaren kontra.

Oihana Azkorbebeitia hirugarren Munduko Kopan

Amaitu da Munduko Kopa. Lau emaitzarik onenak batuta, abadiñarra hirugarren izan da sailkapen nagusian

MENDIA • EKAITZ HERRERA

Kito. Amaitu da mendiko lasterketen aurtengo Munduko Kopa. Guztira, 14 proba puntuagarri jokatu dira, ezaugarri, luzera eta zailtasun desberdinetakoak. Sailkapen nagusiari begira, korrikalari bakoitzaren lau emaitzarik onenak kontuan hartu dira, eta, horren arabera, Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak hirugarren sailkatzea lortu du azkenean. "Luza-roan bigarren joan naiz sailkapen nagusian, baina horrek ez zuen

ezer esan gura, behin-behineko sailkapena zen eta. Korrikalari bakoitzak lau proba egin arte itxaron behar izan da behin betiko sailkapena jakiteko. Zenbait korrikalari azken proba zuten laugarrena, Limone Skyrace lasterketa, eta oso-osoan nengoen korrikalari bik aurreratuko nindutela: Kröll austriarrak eta Tindley taldekide britainiarrak. Baina hirugarren egin dut eta pozarren nago, txapelketa osoan neure onena eman dut eta", azaldu du Azkorbebeitiak.



Oihana Azkorbebeitia nazioarteko lasterketa batean, Italian.

Jokaldia

Eskola Kirola, bueltan gara

Asteburu honetan hasiko gara Eskola Kirolean. Denbora asko pasatu da. Azken jardunaldia 2020ko martxoaren 7an izan zen. Urte eta erdi baino zerbait gehiago egon gara geldi, COVID-19a dela eta. Egun asko eta gogorrek pasatu ditugunak. Gutxienez, entrenamendu saioak egiteko aukera zabaldu zen (hori bai luze egin zela...).

Orain, beste pauso bat emango dugu Eskola Kirola martxan jarrita. Larunbat honetan hasten dira txapelketak. Larunbat honetan biziko ditugu berriro partidu (topaketa) ezberdinak, eta horregaitik ez dugu ahaztu behar, saskibaloia gozatzen, lantzen eta ikasten ari garela, eta horregaitik disfrutatu eta animatu behar dugula talde osoa. Epailen lanetan arituko direnak ere animatu behar ditugu, hauek guztiak gabe ezin izango de-



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

"Pozik egon behar gara Durangon eta Durangaldean talde eta saskibaloijokalarik gehiago ditugulako"

"Adostu eta landu egin behar dugu entrenatzaile gazteentzat formakuntza egoki eta erakargarri bat"

lako aurrera egin. Aurten gainera, gehiago!

Gainera, pozik egon behar gara, Durangon eta Durangaldean talde eta saskibaloijokalarik gehiago ditugulako. Neska eta mutil gehiago, nahiz eta azken hauengan gure kirola oraindik ez den guztiz erakargarria bihurtu. Aurrera! Entrenatzaileok

ere asko gara. Gainera, aurten hasi berri direnak ere asko dira eta hori pozteko arrazoi bat da. Beraiek egiten duten lanari esker gure talde guztiak aurrera doaz. Gainera, harro egoteko moduan gaude, zeren eta gazteak dira eta beraien lana ezinbestekoa da gure saskibaloiak aurrera egin dezan. Horretarako, eskolek, ikastolek, saskibaloijokalariek... adostu eta landu egin behar dugu beraientzako formakuntza egokia eta erakargarria baten lanketa, zeren eta, etorkizun labur batean, beraiek izango dira talde nagusien entrenatzaileak. Hori da eskualdeko saskibaloijokalariek gaur egun. Beraz, landu dezagun apurka alderdi hori ere!

Martxan gaude! Bueltan ditugu partiduak eta orain kirol eder honekin gozatzea egokitzen zaigu.

DURANGALDE

Anbотора bidean

Asuntza eta Zabalandi artean dago Anbotorako bidea markatzen duen zutoin seinaleztatzaile hau, Pagozelai lepoan, GR-12 ibilbidean. Atsedenu aproposa da Anbotoko tontorreraino geratzen den 350 metro inguruko desnibelari aurre egiteko. 40-45 bat minutu behar dira pagadian sartu eta tontorrerainoko azken bide harritsuaregiteko.



KO TXOKOAK!



Alluitz Urkiola aldetik begiratuta



Alluitz mendia (1.034 m), edo Ailluz, gure zaharren ahotan. Argazkia Urkiolako Hiru Kurutzeetatik aterata dago eta gailurreria osoa ikusten da, ia Larranoraino. Ezkerraldean, gerizpetan dago Ailluzeko galdara. "Ailluzeko galdarara begiratzea baino ez dago zer ordu den jakiteko", xuxurlatu du haizeak.

Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kotsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



Botikak

BARIKUA, 5 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 6 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

LOPEZ DE ARETXAGA Torresolo 4 - **ABADIÑO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 7 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 8 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 9 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 10 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 11 · 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Urriaren 28xen 7 urte egin dauz **Haizeak.** Zorionak, matraka!



Hurrengoan ere aringa-aringa edo galafan ikusiko zaitugulakoan... Zorionak, **Mendi!**



Azaroaren 5ean **June Etxebarria** printzesak 8 urte egiten ditu. Egun oso ona pasa eta ederto ospatu zure lagunekin. Musu bat tio Yosu eta Carmenen partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 11° / 5° ☁

ASTELEHENA ↓ 12° / 8° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 6° ☁


DOMEKA ↓ 11° / 6° ☁

MARTITZENA ↓ 13° / 6° ☁

EGUENA ↓ 15° / 6° ☁

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Garden

Eleberriaren aurkezpena
Manu Ertzilla idazlearekin

Azaroak 10, eguaztena 19:00-etan. Hitz liburu-dendan.

“Tomatea eta barazkiak ekoizteko, ilargiaren aldiak kontuan hartzen ditut”

Sonia Isasik modu biodinamikoan landatzen ditu tomateak eta barazkiak, eta Bilboko azokan saltzen ditu. Munduko hainbat tokitako 26 tomate motaren haziak ditu



Sonia Isasi Salterain

Baserritarra

IURRETA | 1976

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Urteetan, Sonia Isasiren familiak mahatsoondoak eta upategia izan ditu lurretako Fauste auzoko Trazola baserrian, orain zazpi urte sagardoa eta txakolina ekoizteari uztea erabaki zuten arte. Isasik azaldu duenez, lan eta ordu asko eskatzen zituen. Gainera, osasuna kaltetu dezaketen produktuak erabiltzeari uzteko beharra sentitu zuten. Zeukaten stocka saldu, eta iaz tomatea eta barazkiak modu biodinamikoan ekoizten hasi zen Isasi.

Zelan joan da aurten tomateen uzta?

Oso ondo. Gatxa izan da, ez duelako apenas euririk egin eta hezetasun handia egon delako. Baina asko

zaindu ditut, gainean egon naiz. Zenbait eremutan banatuta, 1.000 bat landara sartu nituen eta 700 ingururik irten dute.

Gure klimak ez ei du tomatea hazten laguntzen. Hala da?

Baliteke, baina garrantzitsua da zelan eta zeren alboan landatzen den. Letxugaren eta kipularen ondoan landatu behar dela diote. Zurkaitza zelan egin ere jakin behar da. Tomateak inaustea behar du, baina neurrian. Garbitu eta aireztatu egin behar da, gainean egon.

Modu biodinamikoan hazten dituzu tomateak. Zelan da hori?

Ilargiaren aldiak kontuan hartzen ditut, eta etxeko abereen ongaria

erabiltzen dut, ongarrri likidoa. Oinarria kate bat da: landan dauden zaldien eta oiloen ongarririkin zaintzen dut ortua, herbizidak saihes-

Tomatezale amorratua naiz, eta tomate hazien bildumagaile bihurtu gura dut. Amarillo Canario tomateagaz hasi nintzen

tuz; eta, sasia kentzeko, ahuntzak ere baditugu. Bestalde, nik neuk ereindako landareetatik lorturiko haziak erabiltzen ditut. Neurri

handi batean, horretara behartzen zaitu nekazaritza biodinamikoak.

Ongarrri likidoa erabiltzen duzula diozu. Zimaurretea egiten dut, ongarrri solidoa likido bihurtuta. Horrez gainera, asunekin, txikoria-belarragaz eta azeri-buztanagaz egindako infusioak erabiltzen ditut landare-osasunerako produktu modura: euri-uragaz egindako infusioak. Baina belar horiek sasoi eta eguneko ordu zehatz batean hartzen ditut; ongarrri lez ere oso onak dira gainera. Hasiberria naiz honetan, baina modu biodinamikoan ekoiztea dut helburu.

Asunekin, txikoria-belarragaz eta azeri-buztanagaz egindako infusioak erabiltzen ditut landare-osasunerako produktu modura

Zelan murgildu zinen mundu honetan?

Iaz hasi nintzen, pandemian sartuta, modu biodinamikoan landaturiko plantazioen bideoak ikusita Interneten. Izugarri gustatzen zait tomatea, denak. Tomatezale amorratua naiz eta tomate hazien bildumagile bihurtu gura dut. Amak Kanaria uharteetatik ekarritako Amarillo Canario tomateagaz hasi nintzen. Aldiro joaten da hara. Orain, 26 tomate mota ditut; Euskal Herrikoak eta Argentinatik, Italiatik, Kolonbiatik eta Poloniatik ekarritakoak, adibidez.

Tomatea ez ezik barazkiak ere landatzen dituzu era biodinamikoan, etxeko ongarririk erabiltza.

Bai. Hasi nintzenean esan zidaten ez nuela ezer aterako. Eta inoizko uztarik onena izan nuen. Gainera, ez daukat negutegirik, kanpoan hazitakoak dira tomate eta barazkiak (aza, zerba, baba, letxuga, lekak, iderak...). Haziak ere horrela lortzen ditut. Landare-zorriarentzat eta euli zuriarentzat loreak ipintzen ditut ortuaren aldamenetan; polinizatze ere oso onak dira. Eta intsektuentzat hotelak ere egiten ditut.

Onura asko ditu tomateak?

Antioxidatzailea da eta kolesterolerako oso ona. Eta estetika munduan ere oso ezaguna da tomatea. Oso ona da ilerako eta azalerako.

Lauhortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEKko irakaslea



Durungaldea euskaldunago izateko bidean aurrera!

Lehenengo eta behin eskerrik asko Anbotoko lagunei Lauhortza atalean idazteko gonbidapenagatik.

Durungaldeko AEKn dagoneko abian dugu 21-22 ikasturtea. Urria amaitu berri dago, eta gure ikasgelak berriro bete dira euskara ikasi edo hobetu gura duten ikasleekin. Baten batek pentsa dezake Durungaldean euskaltegiak soberan daudela; eskualdeko ikastetxe guztiak, edo ia guztiak, D ereduak badira, bada, eskolak betetzen duela euskalduntzeko lana. Ukaezina da eskolek egiten duten lana, baina berriro ere matrikulazioen emaitzetan probatuta geratu da helduak euskalduntzearen premia.

Horren erakusle argiena da behe mailatan dagoen ikasle kopurua eta hauen artean ematen den aniztasuna: erretiroa hartu berri dutenak eta euskara ikastea egin beharrekotan dutenak, estatuko beste herrialde batetik Durungaldera bizitzera etorritakoak eta euskara ikasteko abentura zoragarrian murgiltzen direnak. Adin, zaletasun, motibazio anitza, baina denak helburu bera: euskara ikastea.

Euskaltegira etortzearekin batera, baina, beharrezkoa da ikasle horiek euskaldunen sarea ezagutzea, komunitateko partaide izateko, eta horri begira, hain zuzen ere abiatu dugu Durungaldeko Mankomunitate eta Udalekin batera Berbalagun egitasmoa.

Egitasmo horri esker eza gutuko dute elkar ikasleek eta euskaradunek, bultzada ezin hobe erabilerarako!

Ekimen hauek eta beste asko ezinbestekoak dira, zalantza barik, Durungaldea euskaldunago izateko.

Hurrengoan gehiago!

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491